


Trumpek miresten badu...



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

AEB, 1900eko azaroaren 6a. William McKinley (1843-1901) bigarren ezkerreko zuten AEBetako presidentea. Berriki, Donald Trump ere bigarren ezkerreko zuten AEBetako presidentea ondoren, McKinleyrekiko miresten garbia agertu du.

Horregatik, AEBetako mendirik altuena ofizialki berriro presidentea ohiaren izena jartzea erabaki du Trumpek. Obama administrazioak 2015ean ofizialdu zuen Alaskako gailurraren izena: Denali esaten zioten aspaldi bertakoek. Baina orain berriro McKinley Mendia du izena. Mexikoko Golkoari ere izena aldatuta, toponimia horrela aldatzeak eragiten dituen arazo praktikoa eta etikoei muzin egin die.

Baina McKinley beste modu batzuetara ere omendu nahi du Trumpek: haren urratsei jarraituta. McKinleyri "protektionismoaren Napoleon" esaten omen zioten inportazioei muga-zerga zorrotzak jartzea bultzatu zuelako, eta horrek oparotasuna ekarri zion herrialdeari, Trumpen ustez. Baina Trumpek esaten ez duena da neurri horiek ez zirela denek gustuko izan, eta nekazariak gogor kritikatu zituzten bere garaian enpresa handien mesedetan eta euren kaltetan jokatu izana. Gainera, McKinleyk nagusiki Ohioko kongresista zela bultzatu zituen neurri horiek; presidentetzan jarrera aldatu zuen, "merkataritza gatazkak ez dira errentagarriak" esan eta negoziazioaren bidea hobetsi zuen.



William McKinley, AEBetako 25. presidentea.

McKinleyren espantsionismoa ere goiraipatzen du Trumpek. Bere agintaldian Hawaii anexionatu zuen lehenak -uharteak "amerikartu" eta itsas basea bertan jartzeko asmoz-, eta bigarrenak Groenlandia erosi nahi du. Panamako kanala berriro AEBena izateko nahia agertu du Trumpek, eta McKinleyk, Espainiaren aurkako gerra medio, Filipinak, Puerto Rico eta Guam irla lortu zituen. Baina McKinley, printzipioz, Espainiaren aurkako gerra saihesten saiatu zen; William Hearst prentsa magnateak eta beste batzuek hauspotu zuten iritzi publikoa

gerraren alde. Eta garaipena lortuta, Filipinak anexionatzeko erabakia hartzeko modu bitxia izan zuen: gau batez Jainkoak berak aholkatu omen zion. Jainkoaren aholkuaren eraginez, Filipinen aurkako gerrak hiru urte iraun zuen eta 200.000-250.000 filipinarren heriotza eragin zuen.

Bigarren ezkerreko hautatua izan eta hilabete batzuetara, 1901eko irailean, McKinley presidentea tiroz hil zuen Leon Czolgosz anarkistak. Ez dakigu horretan ere Trumpek McKinleyren bide berdina hartu nahi ote duen. ●

Tutankamon eta gero, Tutmosis II.a

Luxorren, Erregeen Haranetik gertu, hilobi garrantzitsu baten sarrera eta pasabide nagusia aurkitu zituzten 2022an. Orain, alabastrozko objektu batean Tutmosis II.aren kartutxoa topatu dute (irudian). Horrek esan nahi du hilobi hori XVIII. dinastiako faraoiarena dela. Oraindik ere, Egipton antzinaroko hilobiak aurkitzen dituzte arkeologoek etengabe,

baina faraoien hilobi ukitugabeak aurkitzea oso zaila da. Jakina, faraoienak ziren aberastasun gehien gordetzen zituzten hilobiak eta, horregatik, gehienak aspaldi harpilatu zituzten. Ukitu gabe aurkitutako azken hilobia Tutankamonena izan zen (1922) eta horregatik azken mendeko aurkikuntza garrantzitsuenetakoa dela diote titularrek. ●



EGIPTOKO ANTZINAROKO MINISTERIOA